

▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## UNESCOREN “ESKOLA BIDEAK” ERAKUSKETA AIETE KULTUR ETXEAN

**10 fotokazetarik mundu guztiko ikasleek eskolara iristeko eta hezkuntzarako sarbidea izateko aurre egin behar dieten erronkak erakusten dituzte**

***Ikastetxeentzako bisita gidatuak antolatuko dira***

Egunero, munduko milioika haur eta gaztek mendiak, basamortuak, ibaiak, ur izoztuak, gatazka armatuko eremuak edo auzo bereziki arriskutsuak zeharkatzen dituzte eskolara iristeko, hezkuntzaren bidez bizi modu hobea lortuko duten uste sendoarekin.

UNESCOk Sipa Press agentzia entzutetsuari enkargatutako **Eskola bideak** erakusketak India, Thailandia, Kenya edo Estatu Batuetako ikasleek bizitako gairak islatzen ditu. Hauentzat eskolarako bidea odisea bat da, baina baita beraien bizi proiektuak garatzeko aukera bat ere. Pobrezia, bereizkeria, desgaitasuna, gerra edo hondamendi naturalak dira hezkuntzarako bidean dituzten oztopoetako batzuk.

Lehendakaritza, Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkariak, **Juan Ramón Vilesek** eta Mugikortasuneko eta Garraioako zinegotzi ordezkariak, **Pilar Aranak**, gaur aurkeztu dute **Aiete Kultur Etxean ekainaren 10a arte** zabalik egongo den erakusketa hau. Bi udal sailen eta Donostia Kulturaren arteko elkarlanetik ateratako erakusketa hau **Donostiako 16. Giza Eskubideen Zinemaldiaren** ekintzen barnean kokaturik dago, eta lehen aldia da Euskadin ikusgai dagoela, New York, Paris edo Madrildik pasatu ostean.

Juan Ramón Vilesek erakusketaren balioa azpimarratu du *“izan ere, haur hauekin bidaiatzera gonbidatzen gaitu eta eskolara bidean dituzten gorabehera eta arriskuak ezagutzera, hezkuntzaren garrantziaz eta gaur egun oraindik eskubide honetaz gozatzea galarazten duten zirkunstantzien inguruan hausnarketa giteko”*.

Honela, Giza Eskubideetako zinegotziak gogorarazi du Garapen Jasangarrirako Helburuen xedeetako bat, 4. zenbakian jasotzen dena, *“hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa ziurtatzea, eta pertsona orok bizitza osoan zehar ikasketa aukerak izatea sustatzea”* dela. Adierazi du ere *“irudi hauek, erakusten digute gaztetxo hauek muga geografiko, sozial, ekonomiko eta generokoak gainditzeko gai direla ikastera joateko, badakitelako, zailtasun hauei guztiei aurre egin behar izan arren, autonomia eta askatasunez bizitzeko izan dezaketen tresnarik hoberena dela”*.

NBEk jasotako datuen arabera, azken bosturtekoetan eskolatze tasak nabarmen gora egin duten arren, emakume eta neskena gehien bat, oraindik 263 milioi adin txikiko daude eskolatzeke. Ikusi dute Sahara hegoaldeko Afrikako eta Hegoaldeko Asiako eremuetan biztanleriaren %70 ez dela eskolatu lehen eta bigarren hezkuntzan.

Bere aldetik, Pilar Aranak historia hauetako protagonisten ausardia eta irmotasuna goraipatu ditu, eta azpimarratu du *“eskolara iristea oraindik nekezagoa izan ez dadin, bide segurua egotea oso garrantzitsua da. Hezkuntzaren eskubide unibertsala milioika pertsonen murrizten zaie, eta hau larriagotu egiten da hezkuntza jasotzeko bidean bizia jokoan jarri behar baduzu”*.

Honela, Aranak gogorarazi du Donostiak **Eskola bidea** programaren bitartez *“neska mutilak eskolara oinez, autonomiaz, ibilbide seguru batetik, estresik gabe eta pertsona helduen laguntza gabe joan daitezkeen sustatzen saiatzen gara. Baina lortzeko, inguru adeitsu bat sortu behar dugu, non trafikoa bezalako arrisku posible guztiak gutxitu egin behar diren”*.



- ▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)
- ▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

Eta, Ikasle donostiarrek ere eskolara iristeko dituzten zailtasunak eta azken urteetan egin diren aurrerapenak ikusarazteko, erakusketa 200.000 ikaslek azken 15 urtetan urtetan parte harturiko udal ekimen honetako argazkiekin osatu da.

Bisita gidatu didaktikoak antolatuko dira LH3 mailatik DBHko 2. maila bitarteko ikasleentzat. Eskaerak [eskokalabideak@gmail.com](mailto:eskokalabideak@gmail.com)-en egin beharko dira. Bisita hauen helburua da eskola umeak beste batzuk ingurune kaltegarri batean jaiotzeagatik, emakume jaiotze hutsagatik, gutxieneko etnia bateko kide izateagatik edo desgaitasun bat izateagatik dituzten ezberdintasun eta oztopoen kontziente bihurtzea. Baina baita antzekotasunak azaleratzea ere: ikasteko irrika eta ikasi beharra bizitza egoki bat izateko.

Halaber, apirilaren 26an, 19:00etan Aiete Kultur Etxean Pascal Plisson-en **Eskola bideak** filma (2013, Frantzia) jatorrizko bertsioan gaztelaniazko azpiidatziekin proiektatuko da.

**Datuak:** **Eskola bideak** erakusketa / Aiete Kultur Etxean / apirilaren 11tik ekainaren 10era.

Ikastetxeentzako bisita gidatuak: [eskolarabideak@gmail.com](mailto:eskolarabideak@gmail.com)

Apirilaren 26an, 19:00etan Aiete Kultur Etxean Pascal Plisson-en **Eskola bideak** (2013, Frantzia) filma proiektatuko da, gaztelaniazko azpitoluekin.

**Antolatzaileak:** UNESCO, Sipa Press, Timkat, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen eta Mugikortasun saila eta Donostia Kultura.